

### Kostuak:

Gure proiektua aurrera ateratzeak hainbat gastu egitea eskatzen ditu. Gure kasuan kostu finkoak eta aldakorak izango ditugu eta gastu horiei aurre egiteko 30.000€-tako mailegu bat eskatuko dugu. Mailegu hau 30 hilabeetan ordaindu ahal izango dugu hilean 1.095,69€ ordainduz, eta 2 urte eta 6 hilabete pasatzean 33.671,09€ ordainduko ditugu maileguaren interesak direla eta

### Kostu finkoak:

#### **-Alokairua:**

Gure produktua saldu ahal izateko lokal bat alokatzea erabaki dugu. Lokala Uribarrin kokatuta dago eta hilean 1.050 €-tako kostua du. Lokala 303 m<sup>2</sup> ditu eta bi solairu ditu, solairu nagusia eta soto bat. Solairu nagusia batez ere bezeroez arduratzeko erabiliko da eta sotoa ordea jakak biltegitratzeko erabiliko dugu, hau da, biltegi moduan.

#### **-Patentea:**

Marka edo izen komertzial bat inskribatzearen kostua 144-€ ingurukoa da eskatutako lehen klaseagatik. %15 eko deskontua dago posta elektronikoen bidezko eskaeretan. Guk eskaera elektronikoki bidaliko dugu %15 hori aurreztu ahal izateko, eta, kalkulua eginda, 122-€ aterako litzaiuke.



<< Locales o naves en Bilbao

3 de 664 locales o naves



18 fotos Plano Video

### **Alquiler de Local en Uribarri**

Uribarri, Bilbao [Ver mapa](#)

**1.050 €/mes**

303 m<sup>2</sup> | 3,47 €/m<sup>2</sup>

#### **-Soldatak:**

Produktua salduko dugun dendan gu geuk lan egitea erabaki dugu, beraz hilero geure soldatak ordaintzea beharrezkoa izango da. Guztion soldatak kantitate berekoak dira eta ez dira oso altuak izango gastu gehiegi ez izateko, 1.500€-takoak.

### **-Ordenagailu, altzari eta beste materialen erosketa:**

Lokalarentzat zenbait altzari, ordenagailu eta bestelako materialak erosi behar izango ditugu. Material guzti hori kostu finkoen barruan kokatuta egongo da.



### **-Lokalaren konponketa:**

Egia da lokalak duen tamainarentzat ez dela oso garestia, baina argazkietan ikusten denagatik nahiko zikin eta zaharkituta dago, beraz erreparazio bat egitea beharrezkoa dela adostu dugu. Ez dakigu zehazki zein izango den erreparazioaren kostua baina lokalaren baldintzak eta tamaina ikusita nahiko garestia izango dela uste dugu.

### **Kostu aldakorrak:**

#### **-”Saku-jaken” fabrikazioa:**

Nahiz eta gu izan jakaren diseinua eta ideia erabaki dugunak, jakak ez ditugu guk fabrikatuko oso gastu handia iruditzen zaigulako. Horregatik “*We Are Production*” enpresarekin harremanetan jarri gara haiek gure jakak egiteko. Eman diguten informazioaren arabera **jaka bakoitzak 30€-ko kostua izango du**. Beraz nahiz eta jaken prezioa beti berdina izan, kostu aldakorra da lehen hilabeetan unitate gutxi eskatuko ditugulako eta hortik aurrera enkargu handiagoak egingo ditugu.



#### **-Ura eta argia:**

Lokalaren argia eta ura ordaindu behar da ere. Kasu honetan ere kostu aldakorrak dira haien kostuak zenbat ur eta argi erabiltzen dugun arabera izango direlako eta horregatik ezin dugu jakin kostu zehatza. Baina uraren kostua nahiko baxua izatea espero dugu bakarrik komunarentzat erabiliko dugulako.



**-Mantenimendua:**

Baita ere, lokalaren mantenimendua ordaindu behar da. Haren kostua aldakorra da hilabete bakoitzak mantenimendu kostu bat izango duelako. Bestalde, gerta daiteke hilabateren batean mantenimendu kosturik ez egotea.